

Musika

Diskoetxeen heriotza, kulturaren birjaiotzea

Diskoetxeen iturria agortzen ari da. Heriotzaren itzala izkinatik agertzen ikusten duen gaixo terminalaren antzera, etsipenez heltzen diote edozein iltzeri. Azkenaldian, bizirik mantentzen duten intubazioak askatzen hasi zaizkio industriari. Bide penaletik epaileek P2P sareei eman diete arrazoia. Bide zibilean dute diskoetxeek azkeneko esperantza. Euren heriotza kulturaren birjaiotzea izan daiteke.

URKO SÁENZ DE BURUAGA

TELEBISTAN, IRRATIAN ETA PRENTSAN agertzen diren iragarki batzuk ikusita, pirateriaren arazoa oso larria dela pentsa genezake. Ematen diren informazioetan arreta jarrita, ordea, kontuak oso itxura diferentea du. Urtetan, diskoetxeek eta egile eskubideen kudeaketa-erakundeek salaketaren aukera jokatu dute. Hasieran, artxiboen elkartrukatzea ahalbidetzen duten P2P sareak erasotu zituzten. Arazoa begi-bistakoa zen. Baina sare bat ixtea lortuta, beste pilo bat agertzen ziren nonahi.

Gainera, epaiketen kasuek oihartzun handia izan zuten medioetan eta, ondorioz, publizitate ikaragarria egin zitzaion P2P sareei. Napsteren erabiltzaile kopurua hirukoiztu egin omen zen bi urtean, gehienbat, epaiketen albisteen bidez jasandako promozioari esker. Napster ixterakoan haren erabiltzaile ohi guztiek antzeko beste zerbitzueta jo zuten.

Hori gutxi balitz, legea ere aurka zuten. Izan ere, P2P sareek ez dute legerik haus-tan, ez baitute artxiborik gordetzen, erabiltzaileak harremanetan jartzen dituzten zerbitzari soilak dira. Are gehiago, pirate-ria ere ez dago legetik kanpo. Hala azal-tzen da zehazki *El País*ek pasa den abenduaren 1ean argitaratu zuen *Las 10 verdades del P2P que dice Cultura que son men-*



tira (Kultura ministerioak P2Paz esaten dituen 10 egiak gezurra dira) artikuluan.

Bidearekin amaitzea ezinezkoa zela ikusita estrategiaz aldatu behar izan zuten. Musika industriaren nagusiek erabiltzaileetara eta software hori garatzen duten informatikoe-tara bideratu zituzten euren esfortzuak. Porrot egiteko bokazioarekin jaio zen estrategia hau ere. RIAAk (Amerikako Grabaketa Industriaren Elkarte, ingeleseko sigletan) onartzen du bere webgunean salaketa multimilioidunen eginkizun nagusia beldurtzea dela. Oso esanguratsua da, zalantzak argitze-ko atal batean azalpen gehienak ondorengo esaldiarekin amaitzea: 'ordaindu pixka bat orain, edo pilo bat gero'.

Egile eskubideen kudeaketaz arduratzen diren elkarteek esaten dute ez daudela Internet bidezko abestien deskargaren aurka, eta ordaindutako abestiak jaistea defendatzen dute, horrela kantariak egile eskubideak kobratu ahal izateko. Formula hori defendatzeko, Radioheaden eredu jarritzen da maiz. Talde horrek iTunesen jarri zuen *In Rainbows - From the Basement* DVDa, ordainduta deskargatzeko, dendetan salgai egon baino lehen. Interneten harrera ezin hobea izan arren, dendetan ere arrakasta handia izan zuen.

Adibide horrek zerbait demostratu zuen, Internetek ez duela zertan salmenten jaitziera ekartzen. Horregatik, Metallica taldeak, iraganean Napsteren borrero izandakoa, formula bera errepikatu zuen iaz, *Death Magnetic* atera zuenean. Zerbait esan nahi izango du duela oso gutxi Internet bidezko deskargen aurka hain biziki borrokatu zuen taldeak orain *online* deskargak bultzatzeak.

Beraz, egia ote da pirateriak musikaren industriarekin amaituko duela? Beharbada musika industriaren gaur egungo moldea akabatuko du. Eta honek esan nahi du diskoetxeek euren boterea galduko dutela. Pirateriak ez dakar diskoen salmenten gutxitzea; jendearen eskura dagoen disko kopurua handitzen du eta, hortaz, talde bakoitzak gutxiago saltzen du. Nortzuk dira kaltetuak? Orain arte gehien saldu izan dutenak, hau da, diskoetxe handietan daudenak. Ondorioz, talde eta bakarlari 'txikientzat' egoera hobetu egin da: hori ona da kulturaren osasunarentzat.

Pirateriari esker, beste modu batean eza-gutuko ez genituzkeen taldeak ditugu esku-ra. Normalean, entzundako disko bat gutuko badugu, talde horrekiko interesa pizten zaigu. Talde horren kontzertuetara joango gara eta, ziurrenik, hurrengo diskoa erosi egingo dugu.

Pirateriari esker –eta orokorrean, Interneteko baliabideei esker–, lan baten promozioa nabarmenki merkatu da. *Público* egunkariko zuzendari ohi Ignacio Escolar-ek bere *Por favor pirateen mis canciones* (Mesedez, pirateatu nire kantak) artikulua ezagunean azaldu duen moduan, "entsegu lokalean eta instrumentu eta anplifikadoretan denbora eta dirua xahut-

zen dituzten ero gehienentzako, nahiago dut jendea nire musika entzuteaz arduratzen dela jakiteak sortzen didan gogobetetzea, saldutako kopia bakoitzeko jasotzen ditudan 30 pezetak baino".

Honek guztiak esan nahi al du talde 'handientzat' egoera latza dela? Ez guztiz. Bestela ikusi aipatutako Coldplayren eta Metallica-ren kasuak eta, batez ere, euren munduko tour arrakastatsuak.

Gaur egun musikak inoiz baino diru gehiago ematen dio industriari. Baina, noski, industria hori bere osotasunean ulertu behar da. Pirateria diskoetxeen etsairik handiena baldin bada ere, kontzertuak antolatzen –eta ematen– dituztenei fabore handia egin die. *Management* enpresen garaia iritsi da.

Pirateriaren kontrako argudiorik hedatuena artisten hondamena da, baina

kontzertuen sarreraren hazkundea kontutan izanda, indarrak gabe gelditzen da. CD bakoitzeko artistak prezioaren %6 inguru jasotzen du. Kontzertuetan, aldiz, etekin %80.

2003. urtean Fitok (Fito&Fitipaldis taldeko burua) *Lo más lejos a tu lado* diskoa promozionatzeko eman zuen elkarrizketa batean argi azaldu zuen. Ofizialki 100 kopia eskas saltzen zituzten herri batzuetan 1.000 pertsonentzako aretoak betetzen zituzten. Egin kontu. Fito&Fitipaldisen kontzertu baten sarrerak 21 euro inguru kostatzen duela, eta CDaren prezioa horren parekoa dela kontutan izanda, kontzertura joan eta CDa erosi ez duten 900



CD formatua, bere horretan, agortua dago. Horregatik, baliabideak dituzten taldeak eskaintza berriak egiten ari dira: *digipack*ak edo CD+DVD formatuko produktuak.

pertsona horiei esker, Fitok 15.120 euro gehiago irabazi ditu. Kontzertu bakarrean. Saldu ez dituen CDengatik irabazi ez dituen 1.134 euroekin alderatuta, argi gelditzen da pirateriaren faborea.

Orduan, zergatik ari dira musika industriaren krisiaren kontua saltzen? Orain dela urte batzuk, musika berria entzuteko modua bakarria irratia zen. Eta irratian kanta bat jarri nahi duen edonork ordaindu egin behar du. Hortaz, irratian entzuten zen musika, ordaintzeko dirua zeukan diskoetxeetako taldeena zen gehienbat. Hau da, diskoetxeek, irratia bidez, zein musika entzun agintzen zuten.

Orain, irratian agertzen ez diren taldeen musika ezagutzeko baliabide gehiago daude. Normala da diskoetxeak haserre egotea, eragiteko gero eta gaitasun gutxiago daukatelako.

Internetek eskaintzen duen mugagabeko eskuragarritasunak kultur produktu tradizionalen desagertzea ekarriko duela pentsatuko du batek baino gehiagok. Oker ibiliko da, bada. Alde batetik, *retro* moda dela eta, gero eta binilo disko gehiago saltzen dira. Bestetik, produktu digitalen kalitatea hobetzea nahitaezko bihurtu da. Diskoak

saltzea zailagoa dela jakinda, taldeek gehiago landu behar dituzte euren lanak besteen gainetik nabarmentzeko. Gaur egun, ia pentsaezina da baliabide ekonomikoak dituen talde batek bere CD berria DVDrik gabe, edo beste gehigarririk gabe ateratzea. Horrela, *digipack*, edo CD+DVD formatuak nagusi dira.

Esaterako, Barricada taldearen azkeneko hiru argitalpenak horrelako kutsak izan dira. Hogeita bost urteko ibilbideak merezitako luxua, bai, baina dendetako apaletan presentzia mantentzeko baldintza ukalezina ere bai, baita artista kontsagratuentzat ere. Eta pentsatu edozein talde-tan. Zenbatek ez du atera azken urteotan antzeko produkturik?

Beraz, kultura momenturik one-nean dagoela esan daiteke. Garai zoragarria da bai artistentzat, bai kultura-kontsumitzaileentzat. Diskoetxeak desagertuko dira, beharbada; baina horrek artistei autonomia handiagoa eman diezaike sortzeko eta euren lanak ezagutarazteko. Kaleko jendeak baliabide gehiago izango ditu entzun nahi duen musika aukeratzeko, eta errazago izango du kultura eskura. Kultura, zibilizazioaren oinarria. ■

Pirateria diskoetxeen etsairik handiena bada ere, kontzertuak antolatzen –eta ematen– dituztenei fabore handia egin die. Management enpresen garaia iritsi da

Villabonako Euskara Zerbitzua



euskara goxoa gurea
egiozu hozka!



Tel.: 943 693501 • Faxe: 943 691605

euskara@villabona.net

Villabonako Udaletxea, Erreboteko Plaza z/g • 20150 Villabona